Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
Consorcio de Residuos de Gipuzkoa

# CONVENIO-ENCARGO ESPECÍFICO PARA LA DETERMINACIÓN DE LAS CONDICIONES DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN RELATIVA AL DENOMINADO COMPLEJO MEDIOAMBIENTAL DE GIPUZKOA Y A LA GESTIÓN DE INGRESOS Y GASTOS DEL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA

En Hernani, a 29 de julio de 2016

## COMPARECEN

De una parte, D. Aitor Aldasoro Iturbe, en calidad de Vicepresidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en virtud de acuerdo de la Asamblea General de fecha 26 de octubre de 2015.

De otra parte, D. Jose Ignacio Asensio Bazterra, en calidad del Presidente del Consejo de Administración de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U. (en adelante GHK, SA), actuando en virtud de acuerdo del Consejo de Administración de 16 de mayo de 2016.

## INTERVIENEN

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para el otorgamiento del Convenio para la Encomienda de Gestión, y al efecto

## EXPONEN

1. Con fecha 3 de junio de 2010 se aprobó por la Asamblea del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el Convenio Marco por el cual éste le encomendó a GHK, SAU como medio propio y servicio técnico del propio Consorcio, el encargo de realizar en su propio nombre y por cuenta del Consorcio el servicio de gestión en alta de residuos urbanos en los términos descritos en su objeto social. En el Convenio Marco se configuran las relaciones entre el Consorcio de Residuos de

Gipuzkoa y GHK y se define el contenido concreto de la encomienda de gestión a asumir por GHK que comprendería el conjunto de actividades necesarias o convenientes para la financiación, creación y explotación de las infraestructuras previstas en el PIGRUG 2002-2016.

2. En dicho Convenio Marco, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa le encomendó a GHK, S.A.U. la prestación de la totalidad de las funciones que el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa tenía atribuidas en relación a la gestión en alta de los residuos, funciones que GHK, SAU debía prestar en exclusiva, por lo que a partir de dicho momento pasaba a ser GHK, SAU quien prestara, en nombre propio y por cuenta del Consorcio, el servicio de gestión de residuos en alta a la Mancomunidades que forman el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa.

3. GHK, SAU, en cumplimiento de la encomienda realizada por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa licitó, adjudicó y formalizó el Contrato mixto para la construcción, puesta en marcha y explotación del Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa (CGRG). Por diversas circunstancias, dicho Contrato fue resuelto por mutuo acuerdo en fecha 13 de noviembre de 2013, y ratificado por el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el 25 de noviembre de 2013, lo que supuso de facto el abandono del proyecto y la necesidad de reestructurar el modelo jurídico financiero para la construcción de las infraestructuras comprendidas en el citado CGRG a las presentes necesidades económico-financieras.

4. Como consecuencia de estas necesidades económico-financieras y a fin de evitar la consolidación presupuestaria de la inversión asociada al Centro de gestión de Residuos de Gipuzkoa y ejecutar las nuevas infraestructuras en un contexto de desconsolidación del endeudamiento a efectos del cumplimiento de las obligaciones relativas al control de déficit público y endeudamiento de las Administraciones Públicas, la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa en fecha 22 de marzo de 2016 acordó modificar el modo en el que venía gestionando el servicio asumiendo el propio Consorcio parte de la gestión del servicio de su competencia y habilitando la posibilidad de su gestión indirecta con participación de privados.

5. Para el desarrollo de la gestión indirecta de los servicios, el Consorcio ha decidido acudir a la figura del contrato de concesión de obras públicas para la financiación, diseño, construcción, mantenimiento y operación de la Planta de valorización Energética y el resto de infraestructuras vinculadas a la misma que formarán el denominado Complejo Medioambiental de Gipuzkoa (en adelante, el CMG).

   El Consorcio de Residuos de Gipuzkoa será quien licitará los contratos de concesión de obra pública para la financiación, diseño, construcción, mantenimiento y operación de las infraestructuras que formarán el Complejo Medioambiental de Gipuzkoa (CMG).

6. El cambio del modo de gestión de los servicios el Consorcio tiene impacto sobre la encomienda realizada a favor de GHK, SAU por lo que la misma fue modificada por la Asamblea del Consorcio con fecha 21 de junio de 2016.

   A través de dicha modificación del Convenio Marco GHK, SAU deja de ser el prestador exclusivo de los servicios competencia del Consorcio, permitiéndose la gestión indirecta, y asume, entre otras funciones, las de control y gestión de las concesiones administrativas que el Consorcio eventualmente decida licitar para el desarrollo de las infraestructuras y la prestación de dichos servicios.

7. A la vista de la adaptación del Convenio Marco a la nueva forma de gestión de los servicios, es interés del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa que GHK, SAU ocupe un rol dentro de los contratos de concesión de obra pública de gestión y control de los mismos.

8. Con ese objetivo se desarrolla la presente encomienda específica, al amparo de lo dispuesto en la cláusula primera del Convenio Marco que determina que la encomienda de gestión que asume GHK comprenderá el conjunto de actividades necesarias o convenientes para la financiación, creación y explotación de las infraestructuras que sean precisas para el desarrollo de la encomienda así como el control de los contratos de concesión administrativa que, en su caso, suscriba el Consorcio y añade que estas actuaciones serán objeto de un convenio específico

en el que se determinan las condiciones de la encomienda de gestión, cuyo contenido mínimo se regula en la cláusula decimosexta del convenio marco.

9. Así, en desarrollo de este Convenio Marco y, en relación con el CMG, este encargo específico encomienda a GHK las siguientes actuaciones:

   - El apoyo al Consorcio en el control integral de la concesión que se pudiera contratar por el Consorcio para el diseño, construcción y explotación del CMG.
   - Gestionar, en el marco de cada contrato de concesión, el cobro de los ingresos del Consorcio y, asimismo, de los pagos que deba realizar, todo en nombre del Consorcio.
   - El asesoramiento jurídico, económico, financiero y técnico al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, para el cumplimiento de su objeto y fines, que pudiera comprender asistencia técnica de ingeniería, asesoramiento económico financiero y presupuestario a la intervención, etc.
   - Todos estos servicios al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa se realizarán por GHK, SAU en su condición de medio propio.

10. Junto todo lo anterior, el Consorcio ha encomendado a GHK en el Convenio Marco también el apoyo general en el cobro de los ingresos del sistema de gestión de residuos que desarrolla el propio Consorcio. Dado tras la construcción del GMG 1, como infraestructura esencial de este sistema integrado de gestión de residuos, la gestión del cobro de las tarifas del sistema y el pago al futuro concesionario se encuentran íntimamente ligadas, el objeto de esta encomienda específica también aclarar las funciones de GHK al respecto y en general establecer determinados sistemas que permitan reforzar las garantías de cobro del concesionario del precio del contrato de tal manera que se refuerce y clarifique el flujo financiero que sustenta los pagos que el Consorcio deberá hacer al concesionario.

A la vista de los antecedentes expuestos, ambas partes otorgan el presente convenio-encargo específico para determinar las condiciones de la encomienda de gestión, con arreglo a las siguientes,

## CLÁUSULAS

### PRIMERA.- OBJETO, ALCANCE, PLAZO

- OBJETO: El presente convenio-específico tiene por objeto determinar las condiciones de la encomienda de gestión específica del Consorcio a GHK que se relacionan en el expositivo a fin de fijar las condiciones de las relaciones entre el Consorcio y GHK en las prestaciones que GHK le tiene que prestar en relación con el CMG, así como las relaciones que, en el marco de los contratos de concesión de obra que se suscriban, se establezcan entre GHK y el concesionario, así como concretar las responsabilidades de GHK en relación con el cobro de las tarifas que forman los ingresos del Consorcio y los futuros pagos al concesionario.

- ALCANCE: Se encomienda a GHK, SAU para que proceda a realizar:

    - La planificación y control de la gestión de las concesiones administrativas que, en su caso, decida licitar el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, para gestionar servicios de su titularidad. Concretamente, el control de la concesión o concesiones que se pudiera contratar por el Consorcio para el diseño, construcción y explotación del CMG.
    - La gestión de los cobros y pagos que le correspondan al Consorcio, en nombre y por cuenta del mismo.
    - El asesoramiento jurídico, económico, financiero y técnico al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, para el cumplimiento de su objeto y fines, que pudiera comprender asistencia técnica de ingeniería, asesoramiento económico financiero y presupuestario a la intervención, etc. Específicamente en relación con la concesión que se licite del CMG.

- PLAZO: La encomienda tendrá el mismo plazo de vigencia que el Convenio Marco suscrito entre el Consorcio y GHK, SAU, definido en el artículo 6 de sus estatutos sociales.

**SEGUNDA.- FUNCIONES Y OBLIGACIONES DE GHK EN EL CONTROL DE LA CONCESIÓN DEL CMG**

En cumplimiento de la encomienda relativa al CMG, GHK tendrá las siguientes funciones y obligaciones:

- Asesoramiento al Consorcio en las licitaciones, en todos sus aspectos.
- Poner a disposición del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa la estructura de la cual dispone GHK para asesoramiento del mismo.
- Funciones de inspección, vigilancia, control y validación sobre el cumplimiento de los contratos de concesión de obra pública que el Consorcio eventualmente licite.
- Control medioambiental de las infraestructuras del CMG.
- Asistencia en la realización de inspecciones, auditorías, controles y, en general, cuantas actuaciones de seguimiento considere oportunas, las cuales se llevarán a cabo bien directamente, bien a través de terceros contratados al efecto.
- Cálculo y gestión administrativa de los pagos que, según cada contrato, deban hacerse al contratista. En este sentido, GHK, SAU realizará la liquidación de la retribución del concesionario conforme a las condiciones contractuales previstas entre el Consorcio y el contratista para su posterior aprobación por el Consorcio como órgano de contratación.
- Poner a disposición de la concesionaria los terrenos, instalaciones e intangibles (derechos de uso, estudios, proyectos...) de su titularidad necesarios para llevar a cabo el objeto de esta encomienda y para el correcto desarrollo de los contratos de concesión que sean licitados.
- Adoptar, en su caso, todas las medidas que fuesen necesarias para evitar la interrupción de la prestación del servicio objeto de los contratos de concesión y garantizar así su continuidad, en especial, en los supuestos de incumplimientos del contratista, pudiendo repercutir en nombre del Consorcio a éste los gastos

y costes en los que incurra y, en su caso, compensar éstos con los importes que le adeudara por cualquier concepto.

- Informar al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa de todas las circunstancias relevantes en lo que se refiere al funcionamiento de los contratos y, en su caso, puede determinar las deducciones, penalidades o sanciones pertinentes que deban imponer en caso de incumplimiento.
- Control y gestión de los procesos de reversión de las instalaciones al final de la vida de las concesiones.
- Informar periódicamente y, como mínimo, en las sesiones obligatorias del Consorcio sobre el cumplimiento de este convenio específico.
- Cualquiera otras que fueran necesarias para la correcta ejecución de los futuros contratos de Concesión de obra pública para la construcción y explotación del CMG.

**TERCERA.- FUNCIONES Y OBLIGACIONES DE GHK EN EL MARCO DE LA GESTIÓN DE LOS INGRESOS DEL CONSORCIO**

De acuerdo con el artículo 28 de los estatutos sociales del Consorcio, éste aprobará la anualmente las tarifas correspondientes a los diferentes servicios prestados. Las tarifas de los servicios prestados por el Consorcio, vendrán determinado por el coste total del servicio y deberá ser suficiente para cubrir todo el coste.

Las tarifas serán abonadas por las mancomunidades destinatarias de los servicios en las condiciones y plazos que se regulen en la ordenanza correspondiente.

En caso de impago por cualquiera de las mancomunidades el Consorcio tiene competencia para ejercitar las actuaciones previstas en la Norma Foral 6/2007, de 10 de abril y en la Norma Foral 7/2008.

Todo ello con la finalidad de financiar todas las inversiones del sistema integral de gestión de residuos.

Pues bien, para la gestión de la totalidad de dichos ingresos de los entes consorciados, GHK en nombre y por cuenta del Consorcio:

- Realizará los cálculos de la tarifa necesaria para mantener la suficiencia de los ingresos del sistema en los términos del artículo 28 de los estatutos.

- Realizará todas las actuaciones necesarias para el cobro de la tarifa de las mancomunidades en nombre del Consorcio, desarrollando la adecuada contabilización y registro de la misma en nombre del Consorcio. La factura a los entes consorciados deberá incluir la parte correspondiente a la amortización de los bienes titularidad de GHK que se pongan a disposición de la concesionaria, tal y como se establece en el punto 7 de la segunda cláusula de la presente encomienda específica.

- Realizará las gestiones para abrir una cuenta específica de la que será titular el Consorcio que se dotará, como mínimo, con un saldo equivalente a la previsión de pagos futuros de 2 meses al concesionario. Esta cuenta deberá dotarse con carácter prioritario a cualquier otro gasto del Consorcio y solo podrá disponerse de ella en el caso de insuficiencia de otros ingresos y solo para el pago de la retribución del concesionario.

**CUARTA.- PREVISIONES DEL PLAN ECONOMICO FINANCIERO SOBRE EL COSTE PREVISTO EN EL ENCARGO**

Dentro del plan económico financiero de la Sociedad, se incluirá el coste que suponga la realización de la tarea encomendada.

Teniendo en cuenta que las funciones encomendadas tienen un componente variable, no se ha determinado un presupuesto estimado para las mismas, sino que se pretende financiar con la tarifa referida en la cláusula anterior, que deberá aprobar el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa para responder a todo el servicio de gestión en alta que debe prestar el Consorcio a las Mancomunidades, que lo hará en parte directamente a través de GHK y en parte indirectamente a través de concesiones administrativas.

La facturación de los servicios que GHK prestará en cumplimiento de este convenio específico al Consorcio vendrá determinada por el coste total del servicio. La factura deberá incluir la parte correspondiente a la amortización de los bienes titularidad de

GHK que se pongan a disposición de la concesionaria, tal y como se establece en el punto 7 de la segunda cláusula de la presente encomienda específica.

En todo caso, se aplicará lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del Convenio Marco relativa a las obligaciones formales que GHK, SAU debe cumplir en relación a sus presupuestos y las cuentas anuales.

**QUINTA.- OBLIGACIONES DE GHK DE ASEGURAMIENTO DE LAS OBRAS Y PRESTACIONES ENCOMENDADAS**

GHK en relación a los servicios objeto de este convenio específico deberá suscribir las pólizas de seguro necesarias a efectos de cubrir todos los daños que se ocasionen a causa de la ejecución de los servicios cualquiera que sea su naturaleza y volumen

**SEXTA.- FECHA DE ENTRADA EN VIGOR DE ESTE CONVENIO ESPECÍFICO**

Este convenio entrará en vigor al día siguiente de la firma del mismo.

**SEPTIMA.- RECEPCION DE LAS OBRAS E INSTALACIONES POR GHK, SAU**

De acuerdo con el carácter de sociedad mandataria con el que GHK, SAU actúa en cumplimiento de las encomienda del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, la recepción de las obras e instalaciones que se construyan en cumplimiento de los contratos se entenderá hecha por cuenta del Consorcio, siendo éste quién lo adquirirá originariamente, sin perjuicio de que sea GHK, SA quien exija a la concesionaria la correcta ejecución de los contratos de construcción y explotación de las infraestructuras y las consecuencias derivadas de eventuales incumplimientos.

| | |
|---|---|
| **Fdo: Jose Ignacio Asensio Bazterra** | **Fdo: Aitor Aldasoro Iturbe** |
| **Presidente del Consejo de Administración de GHK, SAU** | **Vicepresidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa** |

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
Consorcio de Residuos de Gipuzkoa

**MANDATU HITZARMEN ESPEZIFIKOA, GIPUZKOAKO INGURUMEN GUNEA DELAKOARI ETA GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN DIRU SARRERA ETA GASTUEN KUDEAKETARI DAGOKION MANDATUAREN BALDINTZAK ERABAKITZEKO**

Hernanin, 2016ko uztailaren 29(e)an.

**ELKARTU DIRA**

Alde batetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidenteordea, 2015eko urriaren 26ko Batzar Nagusian hartutako erabakiaren indarrez.

Bestetik, Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.ren (aurrerantzean, GHK, SAU) Administrazio Kontseiluko presidente gisa, Administrazio Kontseiluak 2016ko maiatzaren 16(e)an hartutako erabakiaren indarrez.

**PARTE HARTZEN DUTE**

Izenpetzaile bakoitzak bere karguko eginkizunak betez, elkarri Kudeaketa Mandatuko Hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diotelarik;

**ADIERAZTEN DUTE**

2010eko ekainaren 3an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren batzarrak esparru hitzarmena onartu zuen. Horren bitartez GHK, SAUri agindu zion, Kontsortzioaren bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa izaki, bere izenean eta Kontsortzioaren kontura eramateko hiri hondakinen bideraketa-sareko kudeaketa-zerbitzua, bere xede sozialean deskribatutako baldintzetan. Esparru hitzarmenean itxuratzen dira Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta GHKren arteko harremanak, eta GHK-k bere gain hartu beharreko kudeaketa-mandatuaren eduki zehatza definitzen da;

mandatu horretan GHHKPO 2002-2016an aurreikusitako azpiegiturak finantzatu, sortu eta ustiatzeko beharrezko eta komenigarriak diren jarduerak sartuko lirateke.

11. Esparru-hitzarmen horretan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak GHK SAUri agindu zion hondakinen goi-kudeaketaren inguruan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari esleitutako funtzio guztien prestazioa, funtzio horiek GHK SAUk esklusibotasunez eman behar zituelarik, eta hori dela-eta, une horretatik aurrera GHK SAU bihurtu zen bere izenean eta Kontsortzioaren kontura Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa osatzen duten mankomunitateen hondakinen goi-kudeaketaren zerbitzua emango zuena.

12. GHK SAUk, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak emandako agindu edo mandatu hori betez, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa Zentroa (GHKZ) eraikitzeko, abian jartzeko eta ustiatzeko kontratu mistoa lizitatu, esleitu eta formalizatu zuen. Hainbat gorabehera direla medio, kontratu hori alde bien adostasunarekin suntsiarazia izan zen 2013ko azaroaren 13an, eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2013ko azaroaren 25ean berretsia; horrek *de facto* proiektua bertan behera geratzea ekarri zuen eta aipatutako GHKZ horretan sartutako azpiegituren eraikuntzarako eredu juridiko-finantzarioa orduko behar ekonomiko-finantzarioetara egokituz berregituratzeko premia ekarri zuen.

13. Behar ekonomiko-finantzario horien ondorioz eta Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroari lotutako inbertsioaren aurrekontu-kontsolidazioa ekiditeko eta azpiegitura berriak exekutatzeko zorpetzearen deskontsolidazio-testuinguru batean herri-administrazioen defizit publikoaren eta zorpetzearen gaineko kontrolari dagozkion betebeharrak betetze aldera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Nagusiak 2016ko martxoaren 22an erabaki zuen zerbitzua kudeatzen ari ziren modua aldatzea, Kontsortzioak berak bere gain hartuz bere eskumeneko zerbitzuaren kudeaketaren zati bat eta arlo pribatuaren parte-hartzearen bidezko zeharkako kudeaketaren aukera ahalbidetuz.

14. Zerbitzuen zeharkako kudeaketa garatzeko, Kontsortzioak erabaki du obra publikoaren emakida kontratuaren figura erabiltzea balorizazio energetikorako

planta eta horri lotutako gainerako azpiegiturak, hau da, Gipuzkoako Ingurumen Gunea (aurrerantzean, GIG) delakoa, finantzatzeko, diseinatzeko, eraikitzeko, mantentzeko eta abian jartzeko.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa arduratuko da Gipuzkoako Ingurumen Gunea (GIG) osatuko duten azpiegituren finantzatzeko, diseinatzeko, eraikitzeko, mantentzeko eta abian jartzeko lanei dagokien obra publikoaren emakida-kontratuak lizitatzeaz.

15. Kontsortzioak zerbitzuak kudeatzeko modua aldatzeak eragina dauka GHK SAUri agindutako mandatuaren gainean, eta hein horretan, mandatu hori aldatu egin zuen Kontsortzioaren Batzarrak 2016ko ekainaren 21ean.

    Esparru-hitzarmenaren aldaketa horren bidez, Kontsortzioaren eskumeneko zerbitzuen emaile esklusiboa izateari utzi dio GHK SAUk, zeharkako kudeaketa baimenduz, eta bere gain hartzen dituen funtzioen artean dago, besteak beste, Kontsortzioak azpiegiturak garatzeko eta zerbitzu horiek emateko lizitatzea erabaki lezakeen administrazio-emakidak kontrolatzea eta kudeatzea.

16. Esparru-hitzarmen hori zerbitzuon kudeaketa-modu berrira egokitu dela ikusita, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak interesekotzat jotzen du horien kudeaketa eta kontrolerako obra publikoaren administrazio-emakiden kontratuetan GHK SAUk bere rola jokatzea.

17. Helburu horrekin garatu da honako mandatu espezifikoa, esparru-hitzarmenak lehen klausulan xedatutakoaren babesean, zeinak zehazten baitu GHK-k bere gain hartzen duen kudeaketa-mandatuak barne hartuko dituela mandatua garatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak finantzatzeko, sortzeko eta ustiatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren jardueren multzo osoa, baita ere Kontsortzioak izenpetutako administrazio-emakiden kontratuen gaineko kontrola ere, halakorik balego, eta gaineratzen du jarduera horiek hitzarmen espezifiko baten xede izan behar direla, horrela zehaztuz kudeaketa-mandatuari dagozkionak. Esparru-hitzarmenaren hamaseigarren klausulak adierazten du halako hitzarmen espezifikoak izan beharreko gutxieneko edukia.

18. Hala, hitzarmen-esparru honen garapenean, eta GIGri dagokionez, berariazko mandatu honek GHKri agintzen dizkio honako jarduketak:

- Kontsortzioari laguntza ematea Kontsortzioak GIG diseinatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko kontratatu lezakeen emakidaren kontrol orokorrean.
- Emakida-kontratu bakoitzaren esparruan, Kontsortzioaren diru-sarreren kobrantza kudeatzea, baita ere egin beharreko ordainketak; hori guztia Kontsortzioaren izenean.
- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari aholkularitza juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoa ematea bere xede eta helburuak betetzeko, ingeniaritza arloan laguntza teknikoa, esku-hartzeetako aholkularitza ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontu-mailakoa, eta abar barne hartuta.
- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari zerbitzu horiek guztiak GHK SAUk emango dizkio, bere berezko bitarteko gisa.

19. Aurrekoarekin batera, Kontsortzioak esparru-hitzarmenean GHKri agindua dio Kontsortzioak berak garatzen duen hondakinen kudeaketa-sistemako diru-sarreren kobrantzan oro har laguntza ematea. GIG 1en eraikuntzaren ondoren, hondakinak kudeatzeko sistema integratu honen funtsezko azpiegitura hori den aldetik, oso lotura estua dagoenez sistemako tarifen kobrantzaren kudeaketa eta etorkizuneko emakidadunari ordainketa egitea, berariazko mandatu honek argitu egin nahi ditu arlo horretan GHKren funtzioak zeintzuk diren eta oro har sistema batzuk jarri nahi ditu ahalbidetzeko emakidadunarentzat kontratuaren prezioaren kobrantza-bermeak indartzea, Kontsortzioak emakidadunari egin beharko dizkion ordainketa horien oinarrian dagoen finantza-fluxua indartu eta argitzeko.

Azaldutako aurrekari guzti horiek ikusita, bi aldeek sinatzen dute kudeaketa-mandatuaren baldintzak zehazteko jarraian adierazitako klausulen araberako mandatu-hitzarmen espezifiko hau.

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- XEDEA, IRISMENA, EPEA

- XEDEA: Hitzarmen espezifiko honek xedetzat du zehaztea Kontsortzioak GHKri egindako kudeaketa-mandatu espezifikoari buruz azalpenean agertutako baldintzak, GIGri dagokionez GHK-k eman beharreko prestazioetan Kontsortzioaren eta GHKren arteko harremanen baldintzak finkatuta uzteko asmoz, eta izenpetuko diren obra-emakiden kontratuen esparruan GHKren eta emakidadunaren artean izango diren harremanak finkatzeko, eta halaber, zehazteko zein erantzukizun duen GHK-k Kontsortzioaren diru-sarrerak eta emakidadunari egin beharreko etorkizuneko ordainketak izango diren tarifen kobrantzan.

- IRISMENA: GHK SAUri mandatua egiten zaio, jarraian adierazitakoak gauzatzen has dadin:

  - Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bere titulartasuneko zerbitzuak kudeatzeko lizitatzea erabakitzen duen, hala balitz, administrazio-emakiden kudeaketaren plangintza eta kontrola. Zehazki, Kontsortzioak GIGren diseinua, eraikuntza eta ustiaketarako kontratatu lezakeen emakidaren edo emakida bat baino gehiagoren kontrola.
  - Kontsortzioari dagozkion kobrantzen eta ordainketen kudeaketa, haren izenean eta haren kontura.
  - Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari aholkularitza juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoa ematea, bere xede eta helburuak betetzeko, ingeniaritza-arloko laguntza teknikoa, esku-hartzeetako aholkularitza ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontu-mailakoa, eta abar barne hartuta. Zehazki, lizitatzekoa den GIGren emakidari dagokionez.

- EPEA: Mandatu honen indarraldia Kontsortzioaren eta GHK SAUren artean izenpetutako esparru-hitzarmenak duen berbera da, hain zuzen, estatutuen 6. artikuluan zehaztuta dagoena.

**BIGARRENA.- GHK-REN FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK GIG-REN EMAKIDAREN KONTROLERAKO**

GHK-k honako funtzioak eta betebeharrak izango ditu, GIGri buruzko mandatua betez:

- Kontsortzioari aholkularitza eman lizitazioetan, alderdi guztietan.
- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eskura jartzea GHK-k hari aholkularitza emateko daukan egitura.
- Kontsortzioak egin litzakeen obra publikoaren emakida-kontratuen lizitazioak betetzen direla egiaztatzeko ikuskaritzako, zaintzako, kontroleko eta balioztatzeko funtzioak.
- GIGko azpiegituren gaineko ingurumen-kontrola.
- Ikuskaritzak, auditoretzak, kontrolak eta oro har egokitzat jotako jarraipen-jarduketa oro gauzatzean laguntza ematea, lan horiek bai zuzenean eginda bai horretarako kontratatutako hirugarren baten eskutik eginda.
- Kontratu bakoitzaren arabera kontratistari egin beharreko ordainketen kalkulua eta kudeaketa administratiboa. Alde horretatik, GHK SAUk emakidadunari dagokion ordainsariaren likidazioa egingo du, Kontsortzioaren eta kontratistaren arteko kontratuan aurreikusitako baldintzei jarraituz. Gero, Kontsortzioak, kontratazio-organoa den heinean, onarpena eman dezan.
- Emakidadunaren eskura jartzea bere titulartasunekoak diren eta mandatu honen xedea burura eramateko eta lizitatutako emakida-kontratuak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren lurzoruak, instalazioak eta immaterialak (erabilera eskubideak, azterlanak, proiektuak...).
- Emakida-kontratuaren xedeko zerbitzuen prestazioa etetea ekiditeko eta hala bere jarraipena bermatzeko hartu beharreko neurri guztiak hartzea, batez ere,

kontratistak egindako ez-betetzeen kasuetan. Halakorik gertatuko balitz, Kontsortzioaren izenean hari jasanarazi ahal izango zaizkio sortzen diren gastuak eta kostuak, eta hala balegokio, horiek konpentsatzeko erabili hari zor zaizkion zenbatekoak dena delako kontzeptuengatik.

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari jakinaraztea kontratuen funtzionamenduari dagokionez ager litekeen gorabehera esanguratsu oro, eta ez-betetzeetan, halakorik balego, berak erabaki ahal izango du zeintzuk diren ezarri beharreko kenketak, isunak edo zigorrak.
- Emakida amaitzen denean instalazioak itzultzeko prozesuen kontrola eta kudeaketa.
- Hitzarmen espezifiko honen betetzeari buruz informatu aldiro-aldiro, eta gutxienez, Kontsortzioaren nahitaezko bilkuretan.
- GIGren eraikuntzako eta ustiaketako etorkizuneko obra publikoaren emakida-kontratuak behar bezala exekutatzeko beharrezkoa izan litekeen bestelako jarduketa oro.

**HIRUGARRENA.- GHK-REN FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK KONTSORTZIOAREN DIRU SARREREN KUDEAKETAREN ESPARRUAN**

Kontsortzioaren Estatutuen 28. artikuluari jarraituz, Kontsortzioak urtero onartuko ditu emandako zerbitzuei dagozkien tarifak. Kontsortzioak emandako zerbitzuen tarifak zerbitzuaren kostu totalak baldintzatuko ditu, kostu osoa estaltzeko adinakoak izan behar baitira.

Zerbitzuaren hartzaileak diren mankomunitateek ordainduko dituzte tarifak, dagokien ordenantzan araututako baldintzen eta epeen arabera.

Mankomunitateren batek ordainduko ez balu, Kontsortzioak eskumenak ditu 6/2007 Foru Arauan, apirilaren 10ekoan, eta 7/2008 Foru Arauan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko.

Hori guztia, hondakinak kudeatzeko sistema orokorreko inbertsio guztiak finantzatzeko helburuarekin.

Hortaz, kontsortzioko kide diren erakundeen diru-sarrera horiek denak kudeatzeko, GHK-k honakoak egin beharko ditu Kontsortzioaren izen eta kontura:

- Sistema honetan diru-sarreren nahikotasuna, Estatutuen 28. artikuluak aipatutako baldintzetan, mantentzeko beharrezkoa den tarifa kalkulatuko du.
- Kontsortzioaren izenean mankomunitateei tarifa kobratzeko egin beharreko jarduketa guztiak egingo ditu, haren izenean tarifa horren kontabilizazio eta erregistro egokiak gauzatuz. Kontsortzioko kide diren erakundeei bidalitako fakturan sartu beharrekoa da mandatu espezifiko honetako bigarren klausulako 7. puntuak ezarritakoari jarraituz emakidadunaren esku jarritako GHKren titulartasuneko ondasunen amortizazioari dagokion partea.
- Kontu berezi bat irekitzeko gestioak egingo ditu, Kontsortzioa izango delarik kontu horren titularra, eta gutxienez, emakidadunari egin beharreko etorkizuneko ordainketen 2 hilabeteko aurreikuspenaren baliokidea den saldoarekin hornituko du. Kontu hori Kontsortzioaren beste edozein gasturen aldean lehentasunez hornitu beharrekoa da, eta bestelako diru-sarrerak aski ez direnean baino ezin izango da honetaz baliatu, eta betiere, emakidadunaren ordainsariak ordaintzeko.

**LAUGARRENA.- PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOAREN AURREIKUSPENAK, MANDATUAN AURREIKUSITAKO KOSTUARI BURUZ**

Sozietatearen plan ekonomiko-finantzarioaren barruan sartuko da agindutako eginkizun hau gauzatzeak dakarren kostua.

Aintzat hartuta osagai aldakor bat dutela mandatu honetako funtzioek, ez da zehaztu horien aurrekontu-zenbatespenik, baizik eta aurreko klausulan aipatutako tarifarekin finantzatzea da asmoa. Tarifa hori Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak onartu beharrekoa da Kontsortzioak berak mankomunitateei eman behar dien goi-kudeaketako zerbitzu osoari erantzuteko, hori hein batean zuzenean, GHKren bidez, eta beste hein batean, zeharka, administrazio-emakiden bidez egingo duelarik.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
Consorcio de Residuos de Gipuzkoa

GHK-k hitzarmen espezifiko hau betez Kontsortzioari emango dizkion zerbitzuen fakturazioa zerbitzuaren kostu totalak baldintzatuko du. Fakturan sartu beharko da mandatu espezifiko honetako bigarren klausulako 7. puntuak ezarritakoari jarraituz emakidadunaren esku jarritako GHKren titulartasuneko ondasunen amortizazioari dagokion partea.

Nolanahi ere, aplikatu beharrekoa izango da esparru hitzarmeneko hamalaugarren klausulan, GHK SAUk bere aurrekontuei eta urteko kontuei buruz bete beharreko betebehar formalei dagokienez, xedatutakoa.

**BOSGARRENA.- GHK-REN BETEBEHARRAK MANDATUKO OBREN ETA PRESTAZIOEN ASEGURUEI BURUZ**

GHK-k hitzarmen espezifiko honen xedeko zerbitzuei dagokienez, zerbitzuen exekuzioagatik eragindako kalte oro, dena delakoa izanda horien izaera eta bolumena, estaltzeko beharrezkoak diren aseguru polizak izenpetu beharko ditu.

**SEIGARRENA.- HITZARMEN ESPEZIFIKOA INDARREAN SARTZEKO EGUNA**

Hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

**ZAZPIGARRENA.- GHK SAU-K OBRAK ETA INSTALAZIOAK JASOTZEA**

GHK SAUk sozietate mandatari izaerarekin jarduten du Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak egindako mandatua betez, eta hein horretan, kontratuak betez eraikitzen diren obra eta instalazioak Kontsortzioak jasotakotzat hartuko dira, bera izanik berez eskuratuko duena, eta horrek ez du eragozten emakidadunari azpiegituren eraikuntza eta ustiaketa kontratuen exekuzio egokia edo gerta litezkeen ez betetzeetatik eratorritako ondorioak exijitzeaz GHK SA arduratzea.

**Sin.: Jose Ignacio Asensio Bazterra**

**GHK SAUko Administrazio Kontseiluko Presidentea**

**Sin.: Aitor Aldasoro Iturbe**

**Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidenteordea**